


GURE FABULAK

BERTSOZ

MOTA, NEURRI, ERRIMA ETA SOINU EZBERDINEZ



Juan Manuel Etxebarria Ayesta

GURE FABULAK BERTSOZ

MOTA, NEURRI, ERRIMA ETA SOINU EZBERDINEZ

Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren
diru-laguntza jaso du.

*Liburu honen edonolako berregintza osoa nabiz partziala galerazia dago,
aurrez copyrightaren jabearen idatzizko baimena eskuratzen ez bada,
iturria adieraziz egiten diren aipamenak salbu.*

Egilea: Juan Manuel Etxebarria Ayesta.

Koordinatzailea: Eukene Herrera Jauregi.

Liburuaren azaleko diseinua: Jesse.

Liburuaren barneko diseinua: Edorta Barrios.

Marrazkiak: Patricia Izarra, Jesse,

Marcos San Blas, Almudena de la Torre.


Fotokonposaketa: EDITPRU

Tailer grafikoak: ZURE, S.A.

© Ibaizabal Argitaletxea, 48290 Euba-Amorebieta (Bizkaia)

ISBN: 84-7992-980-4

Legezko Gordailua: BI-2084-96



Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Juan Manuel Etxebarria Ayesta

GURE FABULAK BERTSOZ

MOTA, NEURRI, ERRIMA ETA SOINU EZBERDINEZ



SARRERA

Liburu honen herri-gaia, bertso-egitura, musika-soinu eta gainetikoak ezagunak izanik ere euskal tradizioaren barruan, ondo baino ere hobeto legoke bitargi batzuk erakustea lan honen ZER? ZELAN? eta NORENTZAT? argibidean.

ZER?

Fabula arloan sartzen garenean, mundu zaharrera jo behar dugu nahi eta nahi ez oinarri bila.

Euskalduna mundu zaharra dugu, oraindino inork ere ez daki noizkoa, baina historian zeharko ahozkotasuren tradizioak horixe dinosku.

Idatziari dagokionez, euskaldunok berandu hasi gara idazten, oster, munduko beste herri zahar batzuk, aspaldirik hona ari dira idazten eta Euskal Herria beste herri batzuekin harreman kulturaletan hasi denetik, aberasten etorri da; horregatik oso normala da, esate baterako, guk euskaldunok Bibliako edo eta Esopo zaharraren fabulak ezagutzea era bateko edo besteko irakaskuntza bitarteko.

Literatura-generoan sartuaz, argitasun bat edo beste ematea ondo baino ere hobeto letorke fabula mundu zahar nahiz gaurko hau bere lekuan kokatzeko.

Literatura-generoaren barruan, ez da batere erraza fabularen definizio zehatza ematea.



Aristotelesekin berak ere ez zuen fabula fikzio aparteko generotzat jotzen, esatari edo kontalariaren persuasio bidezko batzuk, azken baten, figura erretorikotzat.

Oraintsuagoko autore batzuk ere ahalegindu dira fabula definitzen, besteak beste batzuk aipatzearen, Grimm, O. Crusius, W. Wienert, K. Meuli, B. E. Perry, M. Nojgaard, etab, baina beharbada, J. Janssens dugu fabularen definizio zehatzenetarikoa ematen diguna eta honelaxe dino: *“La fábula es un relato de poca extensión, en prosa o en verso, que se propone instruir, destacar una verdad, enunciar un precepto con la ayuda de una historieta que ilustra un caso dado y cuya conclusión lógica tiene la fuerza de una demostración y el valor de una enseñanza. La lección que se desprende de la misma está formulada en una máxima, o bien, sobreentendida, procede por inducción: es la moraleja. La fábula es propiamente la puesta en acción de una moraleja por medio de una ficción, o, incluso, una instrucción moral que se cubre del velo de la alegoría.”* (C. García Gual).

Fabula munduaren zabalkundeari buruz eta Europari dagokionez, Euskal Herria barru dela, iturri nagusi bi aipatu behar ditugu: batetik, tradizio klasikoa (Esopo, Fedro, etab.) eta bestetik, Indiakoa, (Panchatantra eta bere bertsio arabeak...), dirudenez iturri biek Mesopotamiara garamatza-telarik.

Laburbilduz, fabulak, historian galtzen direla zein ez direla, gaur egunean ere bizi-bizirik ditugu lehengo, geroagoko zein oraingoak; batzuk jatortasunean eta beste batzuk historian zeharko aldaketa edo eta egokitze eta guzti.

Gu euskaldunok, ez gara bakarrik bizi munduan eta beste kulturetan sartzen joan garen neurrian, geurea galdu gabe, jakina, aberastuz joan gara guk geuk geneukan altxor autoktonoa.



ZELAN?

Liburu honetan eskeintzen diren 30 fabula hauek, bertsoz eskeintzen zaizkigu. Euskal Herri luze-zabalean era askotako bertso-motak erabili eta erabiltzen ditugu, bakoitza bere musika-soinu eta guzti, batzuk beste batzuk baino ezagunago eta erabiliagoak izanik.

Liburu honetako fabula bakoitza, egitura eta soinu ezberdinekoa da. Bata zortziko txikia bada, bestea zortziko nagusia, hurrengoa bederatzi puntukoa, haragokoa koplazaharra, eta horrela, Euskal Herri luze-zabalean entzutetsu egin diren herri-abestietara heldu arte.

Zertarako? Ba, fabula bakoitza ezagutzeaz gain, Euskal Herriko bertso-mota eta euren musika-soinu ezberdinak ezagutu eta gozatzeko. Zer deritzazu?

Horretarako, irudi ederrez apainduriko fabula bakoitzarekin batera, nota musikal eta guztizko melodiak daukazu, fabula irakurri eta aztertu ondoren, kantatu ere ahal izateko, bapatean zein soinu-tresnaren baten bitartez.

NORENTZAT?

Liburu hau, alde batetik, edozein euskaldunentzat da, irakurri ahala, errez sartuko delako euskal tradizio bidean.

Beste alde batetik, eta bereziki, DBH-tik hasi eta Batxilergo zein goragokoentzat litzateke egoki-egokia, bakoitzak bere adinean adineango azterketa egin eta behar diren emaitzak lor ditzan.

Bertso eta soinu desberdineko herri-fabula bilduma honek, hirukoitasun bat lortu nahi luke: **ESKOLA - ETXEA - HERRIA.**

Irakaslearen eginbearra, zubi-lana egitean legoke, eskolan landuak, etxean eta gero herrian ere jarraipena izan



dezan, horrela zainduko baitugu geure geurea dugun orain arteko eta etorkizuneko Euskal Herria.

IKASBIDE EDO MORALEJA

Mundu zaharretik hasita, gizakion bizitza eta hizkuntza bat batera bizi dira eta ezin ditugu banatu.

Fabula liburu honetako hizkuntza, bizitza da, kontatzeko eta kantatzeko eran eskeinia tradizio zaharraren irakasbidean, lehenak gaurraren bidez etorkizunean iraun dezan.

*“Urak handi itsasoan
zabaitz ugari basoan
euskaldun izan, euskaraz bizi
zeure bizitza osoan.”*



I TXIRRITXIRRIA ETA INURRIA



- 1 Uda aldean kanta kantari
hor dabil txirritxirria
bere ondotik geratu barik
lan eta lan inurria.
Txirritxirriak inurriari
egiten dio irria
esanez ea zertan daroan
horren bizitza larria.



- 2 Bata lanean, bestea kantuz
uda egin da pasatu
egunak joan eta etorri
udazkena ere sartu.
Hortik aurrera igarri gabe
zaie negua agertu
eta berandu dela ikusiz
txirritxirria larritu.
- 3 Goseak jota pentsakor dago
txirritxirria kanpoan
han ikusten du inurritxoa
inurri-pilo ondoan
hazi bustiak sikatuz gero
berriro sartzen zuloan;
bera ostera dardarotsean
goseak jota^(*) osoan.
- 4 Txirritxirria hor doa apal
inurriaren etxera
lotsak aldea batera utziz^(*)
jatekoa eskatzera.
Ateak jota, neu naiz esanda,
ematen du aditzera;
deia entzunda urtetzen dio
inurri finak atera.



- 5 Zuk orain arte ez duzu egin
kantatu baino besterik
ni neu lanean nenbilenean
zu berriz nagiz beterik.
Itaunka zatoz ea daukadan
zuretzat borondaterik
baina ez noa zabaltzen zuri
nire etxeko aterik.
- 6 Negu luzean asko behar da
jateko gure artean
zuri emoten hasi ezkeru
ez dugu nahiko etxean.
Zu udan txir-txir ibili zara
eta neguan eskean
ea gugandik ikasten duzun
zuk ere aurrerantzean.

*Goi mendietako ura
basa loreen lilura
dagoenean hartu behar da
gerokoaren ardura.*

(*) Dardarotsean goseak jota: gosearen gosez dardareak hartuta.


(*) Aldea batera utzi: denak jarraian utzi.



LORIAK UDAN (Bilintx)



II AZERIA ETA TXAKURRA



- 1 Azeri bat zegoen
larritasunean
jan gura eta ezin
hain gose gosean.
Erabakia hartuz
gaua iluntzean
herrirantz joaten da
ixiltasunean.



- 2 Baserri bat aurkituz
egin da geratu
eta urdun barrikan
arin begiratu.
Taloa delakoan
bertara saltatu
eta ilargi islada
dela konturatu.
- 3 Han dago hotzakilik
barrika barruan
tripan gosea eta
ardura buruan.
Txakur bat somatzen du
bere inguruan
eta hauxe dinotso
engaño moduan:
- 4 Talo bat zegok hemen
barrika barnean
eta oraindik zeukat
neuk erdi janean.
Ez hadi geratu hor
jan gura ezean
beste erdia jan ezak
neurekin batean.




- 5 Buruz doa txakurra
barrika barnera
ondoren azeria
pozarren kalera.
Txakurra doanean
taloa jatera
ur hutsa sartzen zaio
hagin bitartera.
- 6 Ez talorik ez ezer
ha zen desgrazia
txakurra preso eta
libre azeria.
Eskerrak heldu zena
laster eguzkia
eta horrela lortu
txakurrak bizia.

*Eguzkiak goi argia
lur barruak ur garbia
edozein gauza egin aurretik
eduki kontu handia.*



III

TXAKUR DENAGURA ETA DENABEHARREKOA



IZARRA 96

- 1 Txakur bat zegoen egun baten
zer egin jakin ezean
hara ta hona goizian goizik
baserri aldamenean;
gose egunsentian
zelan ez eguerdian
amorraturik gauean,
erabaki bat hartu nahi zuen
bere egoera latzean.



- 2 Bere etxeko bazkal ordua
izaten zen lez berandu
lapiko hondarrei itxarroteak
egiten zuen gogaitu;
azkenik aspertuta
burua makurtuta
erabakia hartzen du,
bere etxetik beste batera
joan eta han bazkaldu.
- 3 Bere etxetik beste batera
eginez ahoan txua
hor doa txakur-ames hutsean
gure txakur gosetua;
auzokoa hobea
esaera merkea
pentsatuz doa kaikua,
beste etxera heldu da baina
agur hango jatordua!
- 4 Denak bazkalduta aurkitzean
badator berriz etxera
nondik ibili den esan barik
beti lez bazkaldutera;
burua oso behean
buztana hanka artean
joan doa sukaldera,
han ez da inor eta egin du
aurrera barik atzera.




- 5 Atzera egiteaz batera
geratu da lotsaturik
egindakoaz konturatu da
ez daukala ez bururik;
denabeharrekoa
guztiz epe bakoa
ia burua galdurik,
lastategian estaldu behar
inoiz ez lez goibeldurik.
- 6 Etzanda dago baina itzarrik
txakur hori erdi ero
horrelakorik gertatutea
ez zuelako espero;
ona da zuzentzea
okerreko bidea
zintzo biziz egunero,
sarritan galdu egiten baita
dena nahi izan ezker.

*Urak handi itxasoan
zubaitz ugari basoan
zintzoa eta konforme izan
zeure bizitza osoan.*



IPARRAGIRRE (Xenpelar)



IV
AITA ZAHARRA ASILORA BARIK
ETXERA



- 1 Agure baten etxean ez ziren bizi bakean etxerako zen seme gaiztoak aita nahi zuen kalean.
- 2 Semea dabil pentsatzen aita sartzeko nonbaiten asilorako papeleoa berehalaxe gertatzen.



- 3 Heldu da heldu eguna
badoa seme etxaguna
aita lepoan apurrin^(*) hartuz
kentzen ardura astuna.
- 4 Han doaz biak goizean
etxea utziz atzean
basorik baso, mendirik mendi
asilorako bidean.
- 5 Aita egin da nekatu
sema ere estutu
atsedentxo bat hartzeko asmoz
egin dira han geratu.
- 6 Aita hasi da negarrez
sema berriz gedarrez^(*)
bere bihotza, odolez barik
beteta dago kedarez^(*).
- 7 Aita hasten da esaten:
seme, ez zara biguntzen?
neuk ere aita ezarri nuen
hementxe hartuz atsedeen.
- 8 Sema hori entzunik
plantatzen zaio zutunik
ez duela nahi adieraziz
gaurko moduko egunik.



- 9 Goazen aitatxo etxera
odolekoen artera
zer ikusi ha ikasi zainduz
haserre barik bakera.
- 10 Eskerrik asko maitea
zara ni baino hobea
egin duzuna jarraitu dezan
etxean duzu semea.
- 11 Semeak aita hartuta
apurrin dakar kantuka
etxera helduz batera biak
hasten dira dei-zantzoka.
- 12 Etxeko denak atean
aita-semeok aurrean
pozezko negar malko bigunak
ugari dira tartean.
- 13 Ume askoren zentzuna
etxe bizitzan entzuna
bake pozean bizi izateko
iritsi zaie eguna.
- 14 Hantxe bukatu da gerra
zuzenduz behingoz okerra
aurrerantzean nagusiturik
batasun giro ederra.



“Zer ikusi ba ikasi”

“Umearen zentzuna etxean entzuna”

“Haltzaren ondoan baltza erne”

(* Apurrin: arrelepo, zangalatraba bizkarrean eraman.


(* Gedarrez: zarataka.

(* Kedarrez: tximiniatik kea pasatzean horman itsastan den gai beltza.

EGUN DA SANTIMAMIÑA (Herrikoia)



V KIRIKINOA ETA UMEGINTZA



- 1 Kirikinoa dager
bere beharretan
uda aro honeko
gau egunetan,
hara ta hona dabil
bide bazterretan
habia egin arte
gari sustraietan,
hantxe da benetan
bizitza lanetan
egun larrietan
zein pozgarrietan,
pentsatuz gaurko eta
gerokoetan.



2 Kirikino amea
udazken partean
ernari geratu da
aro onean.
Gerora adi dago
gertakizunean
janari ona bila
batean bestean,
alaitasunean
lasaitasunean
laguntasunean
amatasunean,
ames pozean dabil
zorionean.

3 Egunak joan eta
egunak egertu
sabela egin zaio
gutziz loditu.
Egiten du bai egin
haurgintzan pentsatu
eta pentsatze horrek
benetan bildurtu,
gutziz ikaratu
sabela mingortu
loak ezin hartu
eta urduritu,
egoera horretan
nola erditu?



4 Erditzeko unea
gutziz da larria
handiegi dago ta
umeteria.
Ume-narru bakoitza
pintxoz da jantzia
horrek ematen dio
tripala handia,
ordu mingarria
eta aspergarria
bai negargarria
mina hilgarria,
derrigor erditzeko
du egarria.

5 Hil edo bizi doa
harritza batera
harri bati deutsala
ume egitera.
Indar ta indar dabil
aurretik atzera
sabeleko umeak
eginez batera,
han dago minbera
atzetik aurrera
nolako aukera
ezin du bestera,
gerorako hori ez
da jokaera.



*Haize hotza iparretik
ura mendi bizkarretik
egitekoa egin behar da
berandu izan aurretik.*

ZALDI ZURIARENAK (Herrikoia)



VI KUKUA EUSKAL HERRIAN



1 Andramari martiko
ingurumarian
kukua agertzen da
gure Euskal Herrian.

2 Hona helduz batera
hor dabil basoan
ku-ku kantatutsean(*)
goiz-arrats osoan.



- 3 Gizonak entzukan
lehen kukuhotsa
poltsan dirua badu
alai du bihotza.
- 4 Kukuak ez du lanik
habia egiten
beste txori batenaz
zaigu baliatzen.
- 5 Amilotxa hartzen du
kukuak morroitzat
arraultza egin eta
habia beretzat.
- 6 Amilotxa hasi da
arrauntza ezartzen
eta kuku eder bat
digu munduratzen.
- 7 Kukukumea hazten
ardura harturik
hor dabil amilotxa
burua galdurik.
- 8 Lumorraztu^(*) ondoren
eta hegaz hasi
kukuak aeioiak
nahi ditu ikasi.



- 9 Kukua ikastolan
egin da alpertu
eta ez du ikasi
baizik eta kuku.
- 10 Eskola utzi eta
hor dabil parrandan
arbolarik arbola
kuku-kuku kantan.
- 11 Amilotxak habia
hutsik ikustean
atsedena hartzen du
gorputz-bihotzean.
- 12 Kukua badihoa
ekain azkenean
berriro etorteko
datorren urtean.

*Txirritxirri eta kuku
biak parrandan kaikutu
inurri eta amilotxaren
zintzotasuna jarraitu.*

(*) Kantalotsean: kantu eta kantu aritzea.


(*) Lumorraztu: lumaz jantzi txorikumea.



DILIN DALAN (Herrikoia)



VII SAIA ETA AZERIA



- 1 Edur zuria etorri dator
mara-mara lainopetik
lurmenik ere ez da ageri
zelai berdeen gainetik;
sai erpa gogor eta gaiztoa
hegaz dabil goietatik
eta azeria hankak hondatuz
oztaz dabil edurretik
laguntza eske doa saiari
alaurika bihotzetik.



2 Zer da hor goian jazoten dena,
hemen nabil ezinean
asko poztuko nintzateke ni
zerbait zuri entzutean,
azeri maite, oilasko lumak
dituzu jausten aurrean
eztegu batzuk ospatzen dira
goiko lainoen gainean
eta jakia ugari dago
bertaratuen artean.

3 Ai! hau da nire barru barruko
oilasko-jan egarria
baina begira zelakoa den
nire egoera larria,
ez arduratu azeri maite
adi euki belarria
erpaz goratuz egingo dugu
bidai ikaragarria
oilasko-jana izan dezazun
benetan betegarria.



- 4 Azeri eta saia dihoaz
pozik biak bietara
elur malutak gozo laztanduz
goiko ezteguetara,
laino gainera heltzerakoan
saiak dino honetara:
hemen ez dago ez eztegurik
zoaz beheko haitzetara
zure ostean neu joan nadin
zure birrinak jatera.
- 5 Erpak zabalduz saiak bota du
alaurika azeria
era horretan agertu nahian
barruko zitalkeria,
haitzerantz doa burua hausten
biziz bere miseria
saiak berea egin du eta
jango du birrineria
gaur azeria, bihar beste bat
izanik bere feria.


*Gaiztoak sasi-egia
adi eduki begia
bihotz zintzoaz bizi denari
egin beti abegia.*



LIMOSNATXO BAT (Pello Mari Otaño)



VIII BELEA ETA AZERIA



- 1 Gorbeiako haitzean
daukagu belea
eta bere asmoa
gaztaia jatea,
artzainak nondik nora
han adikunea
txabola nahi du berak
artzainik gabea
gaztaiaz ikusteko
pikua betea.



2 Artzain bat ikusten du
txabola aurrean
atea zabalduta
lo atsedenean,
bebingo baten sartzen da
txabola barnean
eta gaztai eder bat
darama aldean
gero nasai jateko
haitz punta gainean.

3 Gaztaia gozatzean
dager azeria
tripetan da ezagun
bere guraria,
ez daki zelan egin
honek eskaria
ondo aztertzen dabil
ingurumaria
bele uxuagandik^(*)
lortzeko saria.



- 4 Pikuan du beleak
gaztai egondua^(*)
azeria azpian
gora adi burua,
honela diotsola
izanik aztua^(*):
soinu ederrekoa
duzu zuk kantua
eta ederragoa
daukazun pikua.
- 5 Belea harrotzen da
neurriak galdurik
eta kantuan hasi
erdi zoraturik,
konturatzen denean
dago damaturik
azeriak ostera
gaztaia lorturik
alde egiten dio
aurreak harturik.




*Gauza bat da esatea
beste bat da izatea
barrokeria ez da izaten
zintzo bideko legea.*

- (*) Uxu: izu, ikarati.
- (*) Egondu: zahartua.
- (*) Aztu: azti.

DOMINGO KANPAÑA (Herrikoia)



IX BASAJAUNA ETA GIZONA



- 1 Basajaun batek jakin nahi zuen
nolakoa zen gizona
horretarako herri aldetik
zebilen hara ta hona
ia gizona zer neurritan zen
indartsua eta ona.
- 2 Basajaun horrek ume txiki bat
aurkitu zuen bidean
eta galdezka hasi zitzaion
barruko jakin minean
ia gizona zen ala ez zen
neurtzekotan indarrean.



- 3 Ume txikia zela oraindik
izan zen bere erantzuna
baina hezkuntzaz lortzen zuela
bizitzarako zentzuna
eta helduko zitzaiola bai
gizonduteko eguna.

- 4 Basajaun hori joan zihoan
gizonen bat aurkitzeko
eta bidean adineko bat
aurkitzen du bitarteko
ia gizona zen galderari
eskatuz erantzuteko.

- 5 Gizona izan zela erantzun
zion hark gizon helduak
eta indarge zeuzkala berak
zankoak eta eskuak
olagizonak zirela orain
gizonezko indartsuak.

- 6 Ola barrura sartuz batera
aurkitu zuen aurrean
olagizon bat tenazarekin
bere esku bien artean
basajaunari bertan sartzeko
gori-gori sudurrean.



7 Basajaun denak baztertu ziren
 bildurrez mendi aldean
 eta ez ziren berriz ausartu
 sartzen gizonen artean
 gizonezkoa izan zelarik
 nagusi aurrerantzean.


*Ona indarra eskuan
 eta zentzuna buruan
 askoz hobea biak batera
 zintzoen bihotz barruan.*

PELLO JOXEPE (Herrikoia)



X

ARTZAIN GEZURTIA ETA OTSOA



- 1 Artzain batek artaldea zaintzen zuen basoan ardura handirik gabe otsoen erasoan txistuka eta kantuka goiz arrasti osoan.
- 2 Gezurtia zen aldetik laster zuen asmatu bere herritar lagunak nola bromaz burlatu otsoa zetorkiola ta laguntza eskatu.



- 3 Lagunek ikusi zuten
egoera larria
eta armaz orniturik
hartu zuten mendia
otsoari emateko
behar zuen saria.
- 4 Harriturik lotu ziren
mendirira igotean
ikusiak ikusita
sinestu ezinean
artzaina barre zantzoka
jarrita ikustean.
- 5 Herritarrak haserretu
ziren artzainarekin
laguntzen egin ondoren
horrenbeste ahalegin
bakoitzak bere etxean
eukiz nahiko zeregin.
- 6 Handik lasterrera berriz
artzainak deiadarra
larritasunaz aparte
zantzo eta negarra
oraingoan ez zion nahi
inori jo adarra.



- 7 Herritarrek ez zioten
egin gura kasurik
aurreko gezurrarekin
zeudelako mindurik
orain ez zuen hartuko
euren laguntasunik.
- 8 Azkenean etorririk
benetako otsoa
hagilotsez bete zuen
mendi eta basoa
banan-banan irentsirik
ia artalde osoa.

*Gezurra biderdikoa
sarritan leporikoa^(*)
egibidea dugu oster
gure lagun betikoa.*

(*) Leporikoa: bide laburrekoa, pauso laburrekoa.



TXORITTUA, NURAT HUA? (Herrikoia)



XI

URREGORRIA GALONDOPEAN



- 1 Aita baten familia
alperra eta handia
nagusi nagikeria;
seme alperrok entzuten daude
aitagandik notizia
badela urregorria
guztientzako saria
solopean estalia.



- 2 Aitarena entzutean
hasten zaizkigu lanean
semeok euren artean;
aitzurak hartu eta aitzurren
goiz eta arratsaldean
batzuek lur azalean
ta besteek sakonean
denak jo ta ke batean.
- 3 Aitzurtu eta aitzurtu
egin zaizkigu nekatu
eta lanean aspertu;
beharra utziz etxera doaz
eta aitari azaldu
ezin dutela aurkitu
nahiz eta lurra sakondu
baina bai bihozberatu.
- 4 Aita hasi da poztuten
semeon lanen ondoren
hasiz eurei esaten:
lur landuotan hasi zaitezte
gari hazia ereiten
urtean zehar zainduten
uztailean ebagiten
gero ogia egiten.



- 5 Semeok konturaturik
aitarena ulerturik
ez daukate ez dudarik;
garia dute urregorria
guztiak daude pozturik
aitarekin eskerturik
alperkeria kendurik
geroko jana lorturik.

*Udazkeneko ereitza
uztailerako emaitza
zintzo jokatzuz berma daiteke
eguneroko bizitza.*

IKUSTEN DUZU GOIZEAN (Irazabal Elissanburu)



XII BAGA-USOA ETA INURRIA



- 1 Laino beltzak zeruetan
ilundeak bazterretan,
euri tantak lainopetan
hezetasuna lurretan.
- 2 Ibaietan handi urak
lur zatiak eta zurak,
piztitxoak estukurak
erakutsiz arrenkurak.



- 3 Larri dabil inurria
ikusirik ur handia,
argi dauka guraria
denen gainetik bizia.
- 4 Uso batek ikusten du
inurria nahiko estu,
hegaz hazi zaigu prestu
eta lagun lez aurkeztu.
- 5 Inurria ur artean
dago ito beharrean,
igerian, ezinean,
ia bere azkenean.
- 6 Badatorkio usoa
berari laguntzen doa,
eskeiniz belar lastoa
ateraten du gaixoa.
- 7 Inurriak ikustean
bizia zorionean,
eramango du pozean
baga-usoa bihotzean.
- 8 Lasterrera eguzkia
handik dager ehiztaria,
ohartu da inurria
konponduz une larria.



- 9 Ehiztaria zuhaitzpean
eta usoa gainean,
inurria aldamenean
usoarentzat lanean.

- 10 Ehiztaria apuntatzen
usoa piku garbitzen,
inurria ziri sartzen
ehiztariari nonbaiten.

- 11 Ehiztariak du min hartu
ta usoa konturatu,
berehala eskapatu
eta bizia salbatu.

- 12 Batean eta bestean
daude bai zorionean,
bizi dira poz bakean
beti etorkizunean.

*Beharrezko osasuna
laguntza da ondasuna
biak batera orekatzeko
behar da zintzotasuna.*




ITSASOA LAÑO DAGO (Herrikoia)



XIII

TXAKURRA ETA HARAGIA



- 1 Gose da gure txakurra
susmoz darabil sudurra
jakia bila zulorik zulo
nahi du haragi samurra,
baina ez denez zuhurra
sarri jan behar hezurra.
- 2 Halako baten susmatu
eta haragia lortu du
ibaia gora okela ahoan
osin bat digu aurkitu
sustoz bertan begiratu
eta benetan harritu.



- 3 Ahoan dauka zatia
samurra eta handia
baina ibaian ikusten dago
beste baten irudia,
ha da bere guraria
benetan tentagarria.
- 4 Ahokoa botatzean
haginka dabil urpean
baina geriza hutsa izan da
eukitakoa aurrean,
orain da ezer ezean
dena alperrik galtzean.
- 5 Ondo dago ikustea
zer den ez konformatzea
txakurrak bere abarizian
nahi izan du erortzea
ahaztuz zer den galtzea
beharrezko den fedea.

*Auzoan ogi hobea
baita behiaren esnea,
baina bizitzan beharrezko da
sari konformitatea.*




USO TXURIA (Herrikoia)



XIV

MARI ANBOTOKOA ETA OLAGIZONAK



*Euskaldunon sineskerak sustraituak gurean
mundu zaharra ta berria biak alkar hartzean.*

- 1 Anbotoko Mari dugu dabilena garretan
Anbototik Gorbeira hegazkadan gauetan
zazpi urtez egoten da Anbotoko haitzetan
eta beste zazpi urtez Gorbeiaiko kobetan.

*Euskaldunon sineskerak sustraituak gurean
mundu zaharra ta berria biak alkar hartzean.*



- 2 Ola berri bat egin da Orozkoko herrian ezin dute martxan bota egoera larrian olagizon bat bialtzen da argibide zorian Anbotoko Marigana ilargiko argian.

Euskaldunon sineskerak sustraituak gurean mundu zaharra ta berria biak alkar hartzean.

- 3 Marik ongi etorria egin dio bakean galdetuaz zer dakarren berak esku artean olarena entzun eta berbaroa hastean sagardoa atera dio harmahaiaren gainean.

Euskaldunon sineskerak sustraituak gurean mundu zaharra ta berria biak alkar hartzean.

- 4 Gizon horrek urregorritzko basua harturik "Jesus" esan eta edan du guztia husturik nasai asko geratu da egarria kendurik baina dago konortea ia guztiz galdurik.

Euskaldunon sineskerak sustraituak gurean mundu zaharra ta berria biak alkar hartzean.

- 5 Marik esan dio laster gizonari egia deabruak dadukala geldu ola guztia joateko komentora bilatzen nagusia bedeinkatuz isurtzeko Jainkoaren grazia.

Euskaldunon sineskerak sustraituak gurean mundu zaharra ta berria biak alkar hartzean.



- 6 Olagizon jakituna atzez doa kanpora
Marik esan dion basu hori sartuz kolkora
ulertezin handi batez joaten da basora
bildursartuz alde egiten lehen bait lehen nonora.

*Euskaldunon sineskerak sustraituak gurean
mundu zabarra ta berria biak alkar hartzean.*

- 7 Orozkora heldukeran denak bere zain ditu
ikusia ta entzunak egin ditu hunkitu,
ugazaba komentora joateko larritu
eta Mariren esana nahi du ondo kunplitu.

*Euskaldunon sineskerak sustraituak gurean
mundu zabarra ta berria biak alkar hartzean.*

- 8 Komentoko nagusia isopoaz batera
berehala etortzen da ola berri aurrera
ur bedeinkatua jaurtiz batera ta bestera
bake poza iritsi da olagizon tartera.

*Euskaldunon sineskerak sustraituak gurean
mundu zabarra ta berria biak alkar hartzean.*

*Sineskerak sineskera
lehendik hasita gaurrera
mundu zabarrean Mari omen zen
berriarekin batera.*



KANTATUAZ KANTATUAZ (Jon Lopategi)



XV

PERUTXU, JENTILAK ETA GARIA



JEME-96

- 1 Perutxu gendun jentil garaian
oso mutiko bizkorra
eta bera zen basajaunentzat
zuhurtasunezko zigorra.
- 2 Herritarrentzat jentilak ziren
indartsu ta aurreratuak
burdina lantzen trebeak eta
nekazaritzan landuak.



- 3 Gose urteak etorri ziren
eta janik ez herrian
zerbait pentsatzen eragoioen^(*)
eurek ahal zuten neurrian.
- 4 Jaki onena herritarrentzat
dudarik gabe ogia
horretarako beharrezko zen
jentilek zuten garia.
- 5 Jentilengandik ezinezkoa
zuten garia lortzea
apalik sarri eskatu arren
alperrik zen ekitea.
- 6 Baina Perutzuk une haretan
erabiliaz zentzuna
buru-bihotzak batu zituen
bizkortuz zuhurtasuna.
- 7 Uda udako goiz eder baten
joan zen mendia gora
badaezpada ixilik eta
kontuz jentilen basora.
- 8 Jentil baratza gari ederrez
zegoen bete beterik
jentil artean ez zen entzuten
zantzoa baino besterik.



- 9 Perutzuk hara hurreratzean
sakon hartzen du arnasa
jentil artean erakutsiaz
lasai itxura demasa.
- 10 Jentil handiak esaten dio
handik ia zerk dakarren
garirik ez duela lortuko
arrenka eskatu arren.
- 11 Baina Perutzuk zuhurtasunez
erantzuten dio gertu
gari pilorik handienetik
berak baietz egin saltu.
- 12 Hartan geratu zaizkigu biak
hurrengo egunerako
eta Perutzuk nahiko ardura
dauka bere barnerako.
- 13 Zerbait asmatu beharra dauka
gari garauak lortzeko
zuhurtasuna martxan jarri du
arazoa konpontzeko.
- 14 Oinetakorik nasaituenak
egin ditu aukeratu
gari artera jausten denean
han egiteko betatu^(*).



- 15 Jentila eta Perutxu ere
saltatzeko daude prestu
jentila nasai baina Perutxu
benetan daukagu estu.
- 16 Jentilak saltu batez igaro
du gari pilo handia
eta Perutxuk beren beregi
egin du saltu txikia.
- 17 Jentilak barreka hasi dira
Perutxu han ikustean
oinetakoak sartu ta atera
gari pilo barrenean.
- 18 Perutxuk gariz beterik ditu
aldeko oinetakoak
jentilak berriz barre zantzoka
kokoloak halakoak.
- 19 Handik gerora jentil gazte bat
egiten da konturatu
oinetako barruan garia
egin diela lapurtu.
- 20 Perutxu arin doa herrirantz
jentilak atzerik hara^(*)
basorik baso, biderik bide
bakoitza bere erara.



- 21 Perutxuk ez du ezelan ere
bere lana gauzeztandu
haritz-harro bat aurkitukeran
hantxe egiten da ostendu.
- 22 Jentilak ere hantxe dabilta
batera eta bestera
eta Perutxu aurkitu ezinik
berriz doaz eurenera.
- 23 Jentilak nasai doaz mendira
euren artean esaten
Perutxuk eta, ez dakitela
garia noiz ereiten den.
- 24 Kantatzen doaz mendi bidean
ereitzaren sekretoa
“orri erorte gari ereite”
horixe da hazaroa^(*).
- 25 Perutxuk berriz ezkutokian
adi dauka belarria
eta ikasi egin du buruz
basajaunen abestia.
- 26 Jentil bildurra joanda gero
herrira doa Perutxu
gari garauak eta hazaroa^(*)
egin dizkie azaldu.



27 Gauza ugari etorri zaigu
mundu zaharretik berrira
eta holantxe heldu omen zen
garia Euskal Herrira.

*Gauak ostean eguna
argia bere laguna
irtenbideak gaur asmatzeko
behar da zuhurtasuna.*

(*) Eragoien: ari ziren.

(*) Betatu: bete.


(*) Atzerik hara: hurbiletik hurbilera, bertatik bertara.

(*) Hazaroa: hazi aroa.

AITA PERIKO (Herrikoia)



XVI ERBIA ETA DORTOKA



- 1 Harro dabil erbia
lagunen artean
txit bizkorra delako
guztien aldean
apostuak eginaz
batean bestean.
- 2 Dortoka da ostera
guztiz aurkakoa
bere ibilkunea
beti betikoa
astiro baina beti
jarrera zintzoa.



- 3 Erbiak dortokari
panparroikerian
apostua nahi dio
egin agirian
garaile irtetzeko
joan etorrian.
- 4 Erbi harroak jarri
du haronakoa^(*)
bitan zeharkatzeko
ondoko basoa
lotsaturik uzteko
dortoka gaixoa.
- 5 Biak heltzen diote
arineketari,
erbia badijoa
brinko ta saltari
aurreak hartu eta
laster dortokari.
- 6 Biderdian geratu
da trankil erbia
prisa gabe hartzeko
atsedenaldia
pentsatuz badaukala
oraindik astia.



- 7 Dortoka tipi tapa
bien bitartean
hasi da erbiari
aurreak hartzean^(*)
lozorroan utzia
bide bazterrean.
- 8 Erbia itzartu da
halako batean
oraindik delakotan
dortoka atzean
aharrausika doa
nagiak kentzean.
- 9 Zoruan ikustean
dortoka-arrastoak
saltoka jartzen ditu
zanko ta besoak
eta kendu zaizkio
begiko lausoak.
- 10 Erbiak ikusten du
dortoka aurrean
atzerik hara doa
gogatsu ahalean
behaztopo ugariz
baso oihanean.



- 11 Dortoka helmugara
iritsiz batera
begiratzten hasten da
batera bestera
erbiaren zain dauden
piztien artera.
- 12 Irabazi duenik
ezin du sinestu
erbiaren lagunak
ikusirik estu
eta txapela hartzeko
jarri zaigu prestu.
- 13 Lasterrera erbiak
helmugaratzean
dortoka ikusten du
txapela hartzean
bere lagun zintzoen
txaloen artean.
- 14 Erbia estaldu da
guztiz lotsaturik
bere lagun gaiztoek
arin lagundurik
eta egin duenaz
guztiz damaturik.



*Indarra urak lurrean
azalera zein barnean
harrokeriak laburrak dira
burugabetasunean.*


(*) Haronakoa: joan-etorria.

(*) Aurreak hartu: aurreratu.

AGUR ENE MAITEA (Herrikoia)



XVII
ZOZOA, IPURTIKARA
ETA TXINDORRA



- 1 Udako egun bero-beroan
joan ziren errogatibak egiten
Andra Maria lepoan hartuz
santu guztiei letaniak kantatuz.
- 2 Bide ertzeko sasitza batetik
zozo bat agertzen da denen artetik
eta pausatu ustekabean
Andra Mariaren mantu zuri gainean.

- 3 Gorotza eginaz alde egiten du
eta mantu zuria hainbat zikindu
andariekin beste guztiak
harritu ditu zozo gaizto itsusiak.
- 4 Ipurtikerak hori ikustean
ur garbia hartzen du bere buztanean
gero gorotza ondo garbitu
eta mantu zuria berriro zuritu.
- 5 Handik ingurutik dabil txindorra
eta bete gura du bere alorra
paparreko lumak bitarteko
prest daukagu mantu hezea sikatzeko.
- 6 Eskerrak gure ipurtikerari
eta berdin-berdin gure txindorrari
garbitzearrik^(*) mantu zuria
berriro apainduz gure Andra Maria.

*Eguzkipean argia
mundua sortzez garbia
zikinkeriak egin baino lehen
eduki kontu handia.*

(*) Garbitzearrik: garbitzearren.




HORRA HOR GOIKO (Herrikoia)

A musical score for the song "Horra Hor Goiko (Herrikoia)". The score is written on six staves in a single system. The key signature is three sharps (F#, C#, G#) and the time signature is 2/4. The music begins with a treble clef and a common time signature. The first staff starts with a repeat sign (double bar line with dots) and a section symbol (§). The melody consists of eighth and quarter notes, with some rests. The second staff continues the melody. The third staff features a triplet of eighth notes. The fourth staff continues the melody. The fifth staff features a triplet of eighth notes. The sixth staff ends with a double bar line and a section symbol (§).



XVIII

BASERRITAR ZEKENA ETA URREGORRIA



- 1 Baserritar etxaguna
diruzale ezaguna
bere bizitzan ez du egiten
zaharrendik entzuna
eta galdu du zentzuna.
- 2 Hasi da haziendak saltzen
trukean dirua lortzen
diru guztiak batu ondoren
urregorria erosten
eta kutxa baten sartzen.



- 3 Kutzako urregorria
benetan da ugaria
bera sartzeko aurkitu nahi du
egokia den tokia
ezkutoki bakartia.
- 4 Baserriaren atzean
haritz baten sustraipean
zulo sakon bat egin du berak
auzokoen ixilean
guztiz sekreto bidean.
- 5 Hartu du kutxa eskuan
sartuaz zulo barruan
alde batera eta bestera
begiratzuz inguruan
utziz leku seguruan.
- 6 Gero egun bakoitzean
goiz, eguerdi, iluntzean
haritz ipurdian eserita
dago kutxaren gainean
guztien adikunean^(*).
- 7 Jakitun daude auzoan
zerbait daukala zuloan
eta sorosten hasi zaizkio
gau eta egun osoan
eguneroko pausoan.




- 8 Lapur bat ilargipean
plantatzen da harizpean
eta altxorra lapurtzen dio
harri bat sartuz barnean
kutxaren leku berean.
- 9 Etxaguna esnaturik
badoa konfiaturik
eta harizpeko zulo sakona
ikusten du aitzurturik
lur guztia mogiturik.
- 10 Hasi egin da aitzurren
ikusiz zer gertatu den
baina aitzurren daragoiola
hasita dago bildurtzen
eta burua galdutzen.
- 11 Azkenik jo du sakona
ha ez da ez gauza ona
nondik ote den jakin nahi luke
ezkutokian egona
agur bere zoriona!
- 12 Egoerak pentsarazi
zentzuna argitzen hasi
probetxubako urregorriaz
ezin inork irabazi
zer ikusi ha ikasi!




*Lainabera ibarrean
haize hotza iparrean
burugabeak sarri darama
zoritxarra bizkarrean.*

(*) Adikunea: begiradapean, bistan.

TXANTON PIPERRI (Herrikoia)



XIX OIHANEKO PIZTI IZURRIKETAREN EPAIKETA



- 1 Behin batean oihanean
izurrite bat sortzean
pizti guztien artean
buru haustea nagusitu zen
ikusi nahirik argia
berriz oihane garbia
gaindituz gaixoaldia
bene benetan larria.



- 2 Elkartu zen aberetza
denak emanik baietza
egitekotan autortza
lehoi jauna zen lehendakari
pizti guztien aurrean
azeria aldamenean
otsoa bere parean
hirurak hirukotean.
- 3 Lehoia hasi zen autortzen
harrokeriz ziurtatzen
hilketak justifikatzen
azeri eta otsoak ere
jokatu zuten berdintsu
agertu ziren indartsu
lehoia lez bateratsu
hirurak pare-paretsu.
- 4 Epaimahaiian zeudenak
zirelarik gaiztoenak
agertu ziren onenak
beste piztiak bana banaka
hasi ziren konfesatzen
haronakoak azaltzen
barrukoa kanporatzen
bene benetan apaltzen.



5 Halako baten astoa
epaile aurrera doa
dardarka bere ahoa
azaldu zuen gose-gosean
asetzeko guraria
hartu zuela garia
dena ere huskeria
mindu gabe errotaria.

6 Epaimahaia zutundurik
soinekoak urraturik
guztiz desbideraturik
astoa bota zuten errudun
azpikeria osoan
eta zigortu basoan
erabiliz erasoan
tratamentu inozoan.

*Zenbat eta bigunago
barra doa barrurago
gaizkile dena eroriko da
leben edo geroago.*



AI HORI BEGI EDERRA! (Herrikoia)



XX
SUGEA ETA NEKAZARIA



- 1 Badator udaberria
lurrak soineko berria
nekazaria gertatzen dabil
bere tresneria.
- 2 Solora doa gizona
inontz hezetasunean
eguzkiaren bero handirik
ez dagoenean.



- 3 Lurra landuz egiten du
narrasti asko aurkitu
negu luzeko bizi-lotatik
eginaz itzartu.
- 4 Agertu zaio sugea
lozorroan indargea
hil beharrean, erabaki du
lagun izatea.
- 5 Txapela hartuz eskuan
sartzen du hantxe barruan
epeltasuna emoten dabil
ahal duen moduan.
- 6 Suge hasi da bizkortzen
eta ezpia ateratzen
nekazaria pozarren dago
hari begiratzen.
- 7 Baina halako batean
sugeak ezbeharrean
ausiki egin dio berari
zazt! atzamarrean.
- 8 Zer ausikada gogorra
pozoia ere mingorra
baina sugeari eman dio
benetan zigorra.



- 9 Jo eta hil du berpetan
birrinduz bere oinpetan
soloa utziz hanka egin du
arduraz benetan.
- 10 Nekazaria badoa
ateratzen berenoa
pentsatuz nola izan den bera
hain gizon eroa.
- 11 Garaiz sendatu denean
poza hartu du bihotzean
berriro ez du berdin egingo
etorkizunean.
- 12 Sugea beti sugea
izan arren indargea
beti izango da lurretik narraz
ibilteko hobia.

*Loreak ere arantzak
mendi handiak aldatsak^(*)
badaezpada euki behar du
bere neurria laguntzak.*

(*) Aldats: aldapa.



(Herrikoia)



XXI

AZERIA ETA MAHATSAK



- 1 Azeri bat zebilen
harrokerietan
apostuak eginaz
leku guztietan
baso-mendietan.
- 2 Bere guraria zen
mahatsak jatea
eta bila zebilen
mahasdui hobe
parerik gabea.



- 3 Ibili ta ibili
halako batean
mahatsondo bat aurkitu
zuen bidertzean
goiera gaitzean.
- 4 Berria zabalduaz
azeri artetik
dena zen apostua
berorren partetik,
baietz jan mahatsetik!
- 5 Joan zen joan ere
harro mahatsera
mahats mordo helduak
janaz gozatsera
sabela asetzera.
- 6 Saltoka hasi baina
ezin harrapatu
eta bere asmoa
zeharo trunkatu
han dena bukatu.
- 7 Berriz joan zenean
azeri artera
hauxe izan zitzaion
besteen galdera
den denak batera.



- 8 Nola ibili haiz ba
mahatsok jatean?
honezkero sabela
duk bete betean
lehertu beharrean.
- 9 Mahatsok berde-berde
egon dituk eta
hasi ere ez diat
egin igoketa
ezta gozaketa.
- 10 Horrela azeriak
zurituz burua
haginetsez agertu
zuen amorrua
bazen bai ordua!


*Goiko haitzean edurra
baso onean egurra
bide onera inoiz ez doaz
harrokeri ta gezurra.*



(Herrikoia)



XXII GIZONAREN ADINA



- 1 Gizonak sortu zenean
hartu zuen saria
noiz artekoa izango zen
lur hontako bizia,
bizitzadunen artean bera
izanik nagusia
edukiko zuen gainera
beti buru argia.



- 2 Paradisuan bizirik
iritsi zen negua
eta gizonak egin zuen
erabili burua,
etxea eginaz lortu zuen
egoitza ezkutua
era horretan jasateko
neguko afrontua^(*).
- 3 Negua heldu zenean
eta hotza agertu
hiru abere egin ziren
etxera hurreratu,
zaldia, idia ta txakurra
egin ziren elkartu
eta gizonari arrenka
ostatua eskatu.
- 4 Gizonak erabakia
gura zuen hartzea
abere bakoitzari kenduz
euren adin partea,
hirurek pozik onartu zuten
zati bana ematea
etxe epela izanez gero
adin horren trukea.



5 Gizonaren izakera
on ona da benetan
hasieratik emandako
berezko urteetan,
bere benetako adinez kanpo
hasten da problemetan
bere izakera aldatuz
osteko urteetan.

6 Zaldiak eman dizkion
urteak gozatzean
panparroikerian bizi da
abereen artean,
idiagandiko urteetan
sor-nagitasunean
ta txakurragandikoetan
sarritan haserrean.

*Landarea da hazitik
eta arbola landaretik,
jaiokerarik zahartzarora
joan bide zuzenetik.*

(*) Afrontua: haize hotz zakarra.



GOIZIAN ARGI HASTIAN (Herrikoia)



XXIII

MUTIL BATEK NESKA MAITALE BI



- 1 Behin baten mutil batek
nahi zuen maitalea
eta euren artean
neska polit gaztea
neska polit gaztea
zorionez betea.
- 2 Herri-jai batzuetan
dantzan zegoenean
zerbait sentitu zuen
samurki bihotzean
samurki bihotzean
neska bat ikustean.



- 3 Mutila heldua zen
eta kanaz betea
neska bere aldetik
ilegorri gaztea
ilegorri gaztea
dena irribarrea.
- 4 Neskak gura zuenez
ha mutila gaztetu
egunero kana bat
egiten zion kendu
egiten zion kendu
eta itxuraldatu.
- 5 Baina handik lasterrera
hartuz erabakia
mutilak aurkitzen du
beste neska berria
beste neska berria
adinez nagusia.
- 6 Baina maitale biek
maite zuten mutila
bientzat zeukalako
izakera on ona
izakera on ona
berezkoak emona.



- 7 Gazteak ekin zion
kanetatik tiratzen
eta heldua hasi zen
berekautan pentsatzen
berekautan pentsatzen
bide berdintsua hartzen.
- 8 Neska zaharrak nahi zuen
mutil hori heldua
eta aditu zuen
mutilaren burua
mutilaren burua
ile beltzak hartua.
- 9 Eta orduan hasi
zen ile beltzetatik
bana-banan ateraz
euren sustraietatik
euren sustraietatik
bananduz kanetatik.
- 10 Neska biek horrela
goi zein alborik albo
utzi zuten mutila
benetan guztiz kalbo
benetan guztiz kalbo
eurak geratuz salbo.



*Ukondoa da hurrean
ezin jarri muturrean
gaur asko dabil gure munduan
alperrik dena gurean.*

BRODATZEN ARI NINTZEN (Herrikoia)



XXIV BASA HUNTZA ETA ITURRIA



- 1 Basahuntza zen han basoan
udaberriko beroan
salto eta jolasetan
Gorbeiako pagapetan.
- 2 Izerdituaz batera
badoa ur edatera
ondoan du iturria
asetzeko egarria.



- 3 Iturriko osinean
espilua du aurrean
espiluan begiratu
eta egin da harrotu.
- 4 Ikusi ditu adarrak
izan ere hain ederrak
baina hankak ikustean
esaten du bapatean:
- 5 Adarrekin dut lilura
eta hankekin tristura
adartzarrak onartzea
da niretzat indartzea.
- 6 Dena zela arazoa
han agertu da otsoa
ta basahuntza izututa
arin doa itsututa.
- 7 Sasitzara heldu eta
aurkitu du nahasketa
han adarrak katigatu
eta ezin aurreratu.
- 8 Ikusirik ingurua
otso eta arriskua
oraingoan negar baten
hasi zaigu hau esaten:



- 9 Hankak ditut azpiratu
eta adarrak goraipatu
hanken bidez dut bizia
ta adarretan desgrazia.
- 10 Sasitzan utziz adarrak
hanketan ditu indarrak
indarrota da trebea
lortuaz bizi bidea.
- 11 Hartu du berriz basoa
atzean utziz otsoa
orain badaki benetan
burua jartzen hanketan.
- 12 Nahiz ta adarrak berriz hasi
betirako du ikasi
bizitzeko behar duena
horixe dela onena.

*Azalpean da mamia
gehienetan estalia
gauza bakoitza baloratzea
bene benetan handia.*



HAIKA MUTIL (Herrikoia)



XXV
LAMIÑA ETA NESKATOA



- 1 Behin baten neskato bat baserri inguruan zertan hartan zebilen erreka ertzean eta halako baten adituz erreka aldera lamiña bat ikusi zuen hur hurrean orraztu eta orraztu urre orraziaz ile luze ta gorrikkak apaintasunean neskatoak lamiñari samurkiro begiratzuz uste zuen zegoela ames ederrean.



- 2 Lamiña ikutzeko erabakia hartuz
bere ondo ondora zaigu hurreratu
baina lamiñak neskatxi hori bertan ikustean
erreka barruraino dira arin sartu
baina urre orrazia errekaeren ertzean
lamiñaren estukuraz egin da geratu,
neskatxiak orrazia poztasunez eskuratuz
denporarik galdu gabe zaigu etxeratu.
- 3 Neskatoa gauean lo doa poz pozik
orrazi eta guzti ames gurarian
baina lamiñak oso haserre orraziagatik
neskaren leihopera doaz gau erdian
hasten dira bapatera zantzo-irrintzaka
orrazia eskatuaz euren alaurian
neskatoak bildurtuta, orrazia bihurtuta
bakean itzartu gura du egun sentian.
- 4 Hurrengo egunean neskatxaren etxean
lamiña txiki batek jo zuen atea
berak nahi zuen etxe horretan suaren ondoan
sabela asetzeko irentsi esnea
hori dela ta nahi zuen lehen bere burua
ta bere laminkideak guztiz salatzea
horregatik esne truke lamintxoak gura zuen
eurak nola desagertu zuzen esatea.



- 5 Esandako moduan egin zen herrian
San Juan zekor bikiak batera buztartu
gero erreka tragas haginez Gabon egunean
tragastuz ta tragastuz^(*) ondo gurutzatu
horrela lamiña denak ileak katigatuz
ta odola dariola zeharo birrindu
horregatik harrezkero egin dira betirako
herriaren bakerako guztiz desagertu.

*Gauean argi iluna
eguzkia da eguna
ipuinak ipuin direla beti
da jakin behar duguna.*


(*) Tragastu: lurra lantzeko are mota bat.



ORTZEKO IZAR EDERROK (Herrikoia)



XXVI
BASERRITARRA, EZKURRA
ETA KALABAZA



- 1 Behin baten baserritarra
udaburu partean
solorantz abiatu zen
jarraitzeko lanean
lanerako tresneria
eramanaz aldean
tipi tapa plantatu zen
artajorra alorrean
jorratu ta jorratu
gogoz egurdartean^(*)
berriro ere ekiteko
berdin arratsaldean.



2 Gaulendia^(*) heldukeran
egin zenez nekatu
etxera baino lehenago
zuen atsedena hartu,
bidertzeko harizpea
zen bere pausa leku
eta bertan ezarririk
zegoen zoriontsu,
artotzako kalabazak
zituen begiratu
eta eurak direla ta
berekautan pentsatu:

3 Benetan daukat barruan
buru hauste larria
zergaitino kalabazak
duen hazi txikia
eta bere aihenetik
horren fruitu handia,
eta ostera haritzak
izanik nagusia
ezkur txikia du berak
urteko emaria,
ulertezina benetan
desoreka neurria.



4 Hausnarketan zegoela
jausten zaio behera
haritz ezkur txikitxo bat
buruaren gainera,
buruan jo eta gero
saltoka paparrera
eta poliki-poliki
behingo baten lurrera,
begiratzen zegoela
batera ta bestera
ezkur-kalabazak zeuden
elkarrekin batera.

5 Baserritarra hasi zen
ha ikusi orduan
berrien berriz pentsatzen
sakon bere buruan:
gauza eder asko dago
bizi garen munduan
eta bat hementxe daukat
nik neure inguruan,
desorekarik ez dago
uste nuen moduan
berezkoak jarrai beza
sortutako lekuan.



*Dena ona urrunean
eskasa norberenean
ondo legoke gauzak hartzea
beti diren direnean.*

(*) Egurdartean: eguerdi artean.

(*) Gaulendia: iluntzea, ilunabarra.

NEHOIZ EZ DA SENTITZEN (Herrikoia)



XXVII
NESKA EDERRA
NESKAZHARTUTA EZKONDU



- 1 Ha bai neskatoa
politena benetan
ume eta gaztetan
baina zen harroa
baina zen harroa,
kanpo ederra beti
ta hutsik barrutik
bizi zen ametsean
goiz eta arratsean
burua galdurik
burua galdurik.



2 Ezkontzaratzean
eskatzean eskua
altu zuen burua
mutilen aurrean
mutilen aurrean,
mutil bat ona bazen
bestea hobea
baina bere bihotza
agertuz beti hotza
zen paregabea
zen paregabea.

3 Neskari urteak
zitzaizkion pasatu
eta ia aldatu
handiki usteak
handiki usteak,
oinezkorik ez zuen
nahi bere gizontzat
nahi zuen zaldizkoa
beraren parekoa
hartzekotan ontzat
hartzekotan ontzat.



4 Zaldizkorik ezak
zuen bihozberatu
gutziz neska zahartu
galdurik ametsak
galdurik ametsak,
handik aurrerantzean
damutasun hutsez
ileak urdindurik
urteetan sarturik
bizi zen mingotsez
bizi zen mingotsez.

5 Eta azkenean
ezkondu zen ezkondu
izan arren berandu
konformitatean
konformitatean,
harrokeri guztiak
bota eta gero
kendu zituen neskak
bere barruko kezkek
gau ta egunero
gau ta egunero.

*Udazkeneko lorea
izaten da indargea
gure bizitzan beharrezko da
sarri konformitatea.*



MAITIA NUN ZIRA (Herrikoia)



XXVIII BASERRITARRAREN SEME KONPONDUEZINAK



- 1 Baserri eder baten
bizi zen sendia
semeen alderditik
sano ugaria,
aita arduratzen zen
bere familia
ondasunez gainera
izaten hezia,
baina seme artean
bazen desgrazia
sarri agertzen zela
haserre bizia.



2 Aita beti zebilen
egiten bakeak
ondoan ikusteko
batera semeak,
egunero zituzten
euren haserreak
zailago iminiaz
konpontze bideak,
baina aitak horrela
ikusiz bereak
neurriak hartzen ditu
benetan trebeak.

3 Semei deitu eta
egin ditu batu
eurak euren aldetik
aita inguratu,
aitak zuhurtasunez
bebingoan eskatu
ta zihi eskuta bat
ekartzen manatu^(*),
eta etxeratzean
berriro alkartu
eta jakituriaz
neurri onak hartu.



4 Zihi txorta daukate
semeeek aurrean
eta denak dabiltza
aitak esanean,
banan-banan eskuta
bakoitzak hartzean
han dabiltza guztiak
jo ta ezinean,
indartsuenak ere
ahaleginean
amore eman emanda
denak azkenean.

5 Aitak hartuz eskuta
zihi luzeduna
adierazi zien
bere zuhurtasuna,
batera apurtzea
zen ezintasuna
banan-banan ordea
dena zen biguna,
semeei aginduaz
euren batasuna
aitak bermatu zuen
semeen zentzuna.



*Seme askoren zentzuna
etxe barruan entzuna
haserre eta banaka barik
askoz hobe batasuna.*

(*) Manatu: bidali.

BAKEAREN URTXOA (Mixel Labegerie)



XXIX PERUTXU, JENTILAK ETA ERROTA



1 Perutxuk lortu zuen
jentilen garia
eta asko poztu zen
benetan herria,
baina gero behar zen
berriz ausartia
herrian asmatzeko
errota harria,
ekintza berria
benetan larria,
baina lortu ezkeru
interesgarria.



2 Perutxuk lortu zuen
jentil sorostea
eta euren antzera
errota asmatzea,
baina errota harrian
behar zen habea
sarritan agertzen zen
buelbaka errea,
errearen kea
kiratsez betea,
horrela ezina zen
gari irintzea.

3 Perutxuk beste norbait
deituz laguntzera
basora mana zuen
jentilen artera
jentiltzarron mendira
helduaz batera
zuhurtasun gezur bat
bertan esatera:
Perutxu heldu da
errota sortzera
eta herrian goaz
ogia jatera.



4 Jentilak jarri ziren
guztiz haserrean
erantzun hau emanik
denak bat batean:
Hori ez da posible
herriko partean
haltza behar delako
harri ardatzean
haltza ebatean
idergi betean
horrela irauten du
denpora luzean.

5 Jentilen sekreto
zutenean lortu
errotari ardatza
zioten aldatu
ordurik hona ez zen
bolua geratu
garia eho eta
zahia banatu,
ostean labesu
erraria^(*) prestu,
harrezkero goserik
ez da ezagutu.



*Bedar ederra garia
uda aldeko saria
baserritarren bizibidean
oinarrizko janaria.*


(*) Erraria: ogia.

ITZIARREN SEMEA (Telesforo Monzon)



XXX

PERUTXU, JENTILAK ETA BURDINGINTZA



- 1 Jentil artean oso erreza
ei zen burdina lantzea
hori zen behintzat bai Perutxuren
ta herritarren ustea
lehenengotan garia eta
gero errota lortzea
herritarrentzat izan omen zen
bizi aurrerapidea,
hurrengo baten jentil ola bat
lortu zuten sorostea^(*)
ikasiz nola egiten zuten
burdinaren soldatzea
horretarako behar zelako
buztina edo area.



2 Jentil guztiak oso haserre
zeuden baso ta mendian
eta ostera pozez beterik
Perutxu eta, herrian
baina tresna bat ikusten zuten
han jentilen pagadian
trontza luzea hara ta hona
pagoaren ipurdian,
bota ta bota pago garrastak
euren ingurumarian
Perutxu eta ohartu ziren
aurrerapide handian
eta sorosten ibili ziren
gaueroko ilargian.

3 Sorostu arren ibili ziren
gura eta ezinean
eta Perutxu oinarritu zen
herri zuhertasunean,
ola gizon bat bialdu zuen
udako egun batean
esanaz trontza sortua dela
olagizonen artean,
hori entzunik jentil guztiak
jarri ziren ezetzean
esanaz hori ezina zela
eurekandik apartean
gaztañorria behar zelako
trontzaginak egitean.



4 Perutxuk eta gaztañorria
derrepente zuten hartu
eta haginak nola zituen
berehala begiztatu,
olara joan eta trontza bat
lanaz zutenean sortu
pagadui baten badaezpada
bebingo baten konprobatu,
aurrerakuntza handia zela
ziren denak konturatu
baina mendian jentil guztiak
su eta gar haserretu
eta birritan pentsatu gabe
iluntzean herriratu.

5 Perutxu eta, lotan zeudela
agertu zen ilargia
eta jentilak olara sartuz
egin zuten fetxoria
trontzari guztiz oker okertu
haginadura guztia,
arin ikusi zuten herrian
iritsiz egunsentia
jentilak gabaz maltzurkeriaz
egindako okerkeria,
baina begira norainokoa
izan zen ha miraria
trontza berriaz nagusitu zen
Perutxutarren herria.



*Mendi altura aldatsa
loreak ere arantza
lur honetako bizibidean
ez baztertu esperantza.*

(*) Sorostea: zelatan aritzea.

(*) Trontzaginak: zuhaitzak botatzeko zerra handiaren haginak.

NERE GORPUTZA DARDARKA (Balendin Enbeita)



DIDAKTIKA BIDEA

Mundu zaharretik hasita, gizakion bizitza eta hizkuntza bat batera bizi dira eta ezin ditugu banatu.

Fabula liburu honetako hizkuntza, bizitza da, kontatzeko eta kantatzeko eran eskeinia tradizio zaharraren irakasbidean, lehenak gaurraren bidez etorkizunean iraun dezan.

*“Urak handi itsasoan
zubaitz ugari basoan
euskaldun izan, euskaraz bizi
zeure bizitza osoan.”*

TESTU AZTERKETARAKO OROKORTASUNAK

1. IRAKURRI-ABESTU

Neurriz eta errimaz egindako fabula liburu hau, aurrekoz atzera zein atzekoz aurrera irakur daiteke eta nahi izanez gero, gaika zein neurri-errimaka, eta azkenik soinuaren araberak, bakoitzak soinu melodia ezberdina duelako euskal musika aberatsaren barruan.

2. ARLOAK

Handi handika, 30 fabula hauetan, besteak beste, euskal bizitzako arlo nagusi hauek ikutzen dira:

- I. ETNOGRAFIA
- II. LINGUISTIKA
- III. LITERATURA



IV. ANTROPOLOGIA

V. SOZIOLOGIA

VI. ERLIJIOA ETA SINESKERAK

VII. ETIKA

VIII. OHITURA ZAHARRAK

3. HIZTEGIA

Herririk harako euskara landu, neurtu eta errimatu hone-tan, euskararen aberasbideko hitz, esamolde, esaera, esaldi jator eta abar luze bat jarri eta azaldu egiten dira etorkizune-an ere bizi daitezen.

4. ITURRIAK

Fabula aukeraketa honek Euskal Herria bera du oinarrie-tariko bat eta bere ondoan, mundu zabala, batez ere mundu greko-latinoa.

Iturriak, idatziak izan dira batez ere, baina ahozkoa ere bai, oraindino zorionez, gure Euskal Herri zaharrean ahorik aho dabiltzalako belaunaldiz belaunaldi fabula eta gaineti-kook.

ARLOAK ZEHAZTUZ

I. ETNOGRAFIA

Liburu idatzietatik kanpoko gaiak jasoteko On Jose Miguel Barandiaranen "Guía para una encuesta etnográfica" erabili da.

Alor honetan, herriaren jakintza jasoten da kasu honetan fabula mundua ardatz izanik.

II. LINGUISTIKA

Euskara idatziak, idatzirako arautuak eta idazteko iraka-tsiak, ahozkoa utzi du bigarren mailan. Baina hizkuntza, idazteko eta mintzatzeko da, batez ere mintzatzeko, eta kasu honetan kantatzeko ere bai.



Liburu hau idatzita dago baina oinarria ahozkoa da arau literario eta lizentzia poetikaz jantzita agertu arren.

Laburbilduz, liburu honetako euskara neurtu-errimatuak, joko handia ematen du edozein azterketa linguistiko egiteko, Fonetikatik hasi, Morfo-Joskerarekin jarraitu eta Semantikara heldu arterainokoak.

III. LITERATURA

Arlo interesgarri honetan, besteak beste, hiru funtzio nagusi azpimarratu eta aztertu daitezke:

1. FUNTZIO MIMETIKOA: ZER dioen testuak.

Liburu honetan, 30 fabula beren beregi aukeratuak ageri dira. Batzuk Euskal Herrikoak eta beste batzuk Euskal Herriratuak. Mitologiatik hasi eta eguneroko bizitzarartekoak, baina den denak irakatsi sakon baten bidean, azkeneko moraleja edo eta aholku eta guzti.

2. FUNTZIO POETIKOA: NOLA dion dioena testuak.

- Bertso bidez eginik dago.
- Fabula bakoitza, neurri edo eta errima ezberdinez.
- Fabula bakoitzak bere soinua berezia eta ospetsua.
- Pertsonaiak: mitikoak, errealak, animalia edo eta landare pertsonifikatuak.
- Ahozkotasuna nabari.
- Morfo-Joskera landua baina herri-herrikoia.
- Lexiko zaharra zein gaurkoa aberasbidean.
- Esaera, esamolde, eta aipamen topiko ugari.
- Figura erretorikoak zenbat gura eta harexen beste.
- Bizkaiko euskalki aberatsa batuaz jantzita bata bestearen aberasbidean.

3. FUNTZIO SINBOLIKOA: ZER esan NAHI duen testuak.

- a) Fabula bakoitzean era bateko edo besteko irakatsi sakon bat dago bizitzaren berezko etikaren bidean.



b) Euskara benetan batzeko bidea. Hemen Bizkaiera dago oinarrian baina batura jaso. Beste hainbeste egin behar litzateke beste euskalkiekin edozein herririk harako euskara aberatsak euskaldunago egin gaitzan etorkizunean.

c) Fabula bakoitzeko bertsoak, soinu ezberdinekin kantatu ahal izateak dakarren aberastasuna azpimarratu nahi da euskaldunon kantatzeko ohitura munduan.

IV. ANTROPOLOGIA

Euskal Herria, herri zaharra da eta beste herri zaharrekin, alde batetik, berezko antzekotasuna dauka eta bestetik jakituria historikoaren tradizio bidez zerikusia, batez ere, mundu greko-latindarrarekin.

Fabula batzuk geure geureak badira ere, beste batzuk geureganatuak dira. On Jose Miguel Barandiaranek dioen bezala, guk geureganatu egin ditugu aldaki batzuk bitarteko eta horrela Euskal Herria aberastu eta unibersaldu.

V. SOZIOLOGIA

Arlo honetan, alde batetik, mitologia munduko pertsonaiak ikus daitezke, bestetik, herritarron artekoak eta azkenik, animalia eta landare pertsonifikatuak eta batean bestean pertsonaia nahasketa ere bai.

Fabula hauek irakurri ahala, mundu zaharretik gaurkorarteko aldaketa sozio-ekonomiko-kulturala ere ikusiko da. Gizarteko etika bidea ere aipagarria da, gaur eguneko hiri-bizitzarekin konpara bidean.

VI. ERLIJIO ETA SINESKERAK

Beharbada arlorik eta aipatuenetarikoa dugu. Alde batetik, Kristo aurreko sineskerak agertzen zaizkigu gure mitologia aberatsa agertuz. Bestetik, kristautasunaren Euskal Herriratzea ikus daiteke, baina konfluentzian, eten handiegi-rik gabe.



Fabula batzuetako enigma, intriga edo antzerakoen irtenbidea, paganoa edo erlijiosoa da.

Zuhurtasunaren aldamenean, erlijio indarra dabil bitarteko, eta indar handiz ibili ere, fabula batzuk lekuko.

Gaur egun, zientziak argitu egin ditu enigma asko, beste batzuk ez, eta herriak, hemengoak zein haragokoak, beti aurkitu dio enigmari irtenbide edo erantzunen bat, mitologian, zuhurtasunean edo kristautasunean oinarrituz.

VII. ETIKA

Herri zaharrentzat, jakituria enpirikoan oinarritutako tradiziozko jokaerak beti izan du eta badu bere garrantzia eta eragina.

Fabuletan argi ikusten da eta moralejetan ere hortixek jo dugu, ondo eginiko bideak jarraipena izan dezan etorkizunean.

“Esperientzia, zientziaren ama da”, dio esaera zahar batek, zergatik hargatik izango da!

VIII. OHITURA ZAHARRAK

Herri baten izakeran, ohitura zaharrak ezin dira ahaztu. Bizitzaren joanean, bidezko da zeozer zaharkiturik geratu eta bertanbera uztea, baina belaunaldiz belaunaldiko ohitura on asko baliagarriak dira gaurko zein etorkizunerako. Baina horretarako, horiek ohiturok, ezagutu egin behar dira lehenengo eta erabili gero, lehenak gaurra egin duen bezala, gaurrak etorkizuna egin dezan.



AURKIBIDEA

| | |
|--|----|
| SARRERA | 7 |
| I. TXIRRITXIRRIA ETA INURRIA | 13 |
| II. AZERIA ETA TXAKURRA | 17 |
| III. TXAKUR DENAGURA ETA DENABEHARREKOA | 21 |
| IV. AITA ZAHARRA ASILORA BARIK ETXERA | 25 |
| V. KIRIKINOA ETA UMEGINTZA..... | 29 |
| VI. KUKUA EUSKAL HERRIAN..... | 33 |
| VII. SAIA ETA AZERIA..... | 37 |
| VIII. BELEA ETA AZERIA | 41 |
| IX. BASAJAUNA ETA GIZONA | 45 |
| X. ARTZAIN GEZURTIA ETA OTSOA..... | 49 |
| XI. URREGORRIA GALONDOPEAN | 53 |
| XII. BAGA-USOA ETA INURRIA | 57 |
| XIII. TXAKURRA ETA HARAGIA | 61 |
| XIV. MARI ANBOTOKOA ETA OLAGIZONAK..... | 65 |
| XV. PERUTXU, JENTILAK ETA GARIA | 69 |



| | |
|---|-----|
| XVI. ERBIA ETA DORTOKA..... | 75 |
| XVII. ZOZOA, IPURTIKARA ETA TXINDORRA..... | 81 |
| XVIII. BASERRITAR ZEKENA ETA URREGORRIA..... | 85 |
| XIX. OIHANEKO PIZTI IZURRIKETAREN EPAIKETA..... | 89 |
| XX. SUGEA ETA NEKAZARIA..... | 93 |
| XXI. AZERIA ETA MAHATSAK..... | 97 |
| XXII. GIZONAREN ADINA..... | 101 |
| XXIII. MUTIL BATEK NESKA MAITALE BI..... | 105 |
| XXIV. BASAHUNTZA ETA ITURRIA..... | 109 |
| XXV. LAMIÑA ETA NESKATOA..... | 113 |
| XXVI. BASERRITARRA, EZKURRA ETA KALABAZA..... | 117 |
| XXVII. NESKA EDERRA NESKAZAHARTUTA EZKONDU..... | 121 |
| XXVIII. BASERRITARRAREN SEME KONPONDUEZINAK..... | 125 |
| XXIX. PERUTXU, JENTILAK ETA ERROTA..... | 129 |
| XXX. PERUTXU, JENTILAK ETA BURDINGINTZA..... | 133 |
| DIDAKTIKA BIDEA..... | 139 |



JUAN MANUEL ETXEBARRIA AYESTA

Zeberiokoa. Filosofiararteko ikasketak egin ondoren Derioko Seminarioan, Magisteritza egin zigun Bilbon. Karrera berria sortuz batera, Euskal Filologian lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean, ohorezko matrikula ateraz. 1988tik "Cum Laude" eta guztizko doktorea dugu Euskal Filologian "Zeberio Haraneko Euskararen Azterketa Etno-Linguistikoa" ikergaiaz.

Gaur egun, Euskaltzaindikoa izateaz gain, doktorego tesietako zuzendari bezala, herri-euskara bizia jasoteko proiektu oso interesgarri eta behar beharrezko baten dabil Etno-Linguistika bidean.

Beste alde batetik, On Jose Miguel Barandiaranek sortu eta zuzendutako Bizkaiko Etniker taldekidea dugu Labayruren babespean. Guzti honen ondoren, idazlea ere bada. Batez ere hiru arlo landu ditu: Euskal Linguistika; Etnografia eta Ipuingintza Bizkaiera gaurkotuan zein Batuan.

Lehendik ere bai, baina batez ere, Barandiaranen eskolakoa izanik, doktore tesia burutzerik hona, argi ere argi ikusi du euskara biziak daukan garrantzia euskararen etorkizunerako.

Juan Manuel Etxebarria Ayestak, liburu honetan, bertso-mota, kopuru, neurri, errima eta soinu ezberdineko 30 fabula interesgarri eskeintzen dizkigu Euskal Herririk hara edo eta Euskal Herriraturik hara hartu eta Batura jasorik etorkizuneko euskararen aberasbidean.

